



ETXEBIZITZA TURISTIKOETARAKO INGURUMEN JARDUNBIDE EGOKIAK Jabeak

2022

Proiektuaren zuzendaritza:

DONOSTIAKO UDALA
Osasun eta Ingurumen Zuzendaritza
Donostia San Sebastián Turismoa


Laguntza teknikoa:

ISLADAK AHOLKULARITZA, Koop.Elk.Txikia

Diruz lagundua:



Laguntzailea:



Euskadiko Etxebizitza Turistikoen Elkartea
Asociación de Viviendas de Uso Turístico de Euskadi

APARTAMENTU ETA ETXEBIZITZA TURISTIKOETAKO JABEEI ZUZENDUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK



ENERGIA KONTSUMOA

Energiaren erabilera arduratsua egiteko gomendioak

- Etxebizitzaren energia-ziurtagiria
- Energia kontsumoa kontrolatu
- Mantentze eta garbiketa egokiak egin
- Arauzko azterketak eta ikuskapenak egunean izan
- Energetikiko eraginkorrek diren ekipoak eskuratu
- Etxebizitzaren isolamendua hobetu
- Aire girotuaren eta argiztapenaren itzaltze automatikoa programatu
- Terrazetan edo balkoietan berokuntzako edo aire girotuko aparatuek ez instalatu
- %100 energia-iturri berriztagarrietatik datorren elektrizitatea eskuratu



UR KONTSUMOA

Uraren erabilera arduratsua egiteko gomendioak

- Ur kontsumoa kontrolatu
- Mantentze egokia egin
- Ur kontsumoa duten ekipo eraginkorrek instalatu



HONDAKINEN KUDEAKETA

Hondakinen kudeaketa egokiarekin erlazionatutako jardunbide egokiak

- Bezeroek hondakinak bereizteko behar dituzten ontziak izan




ENERGIA KONTSUMOA

Energiaren erabilera arduratsua egiteko gomendioak

✓ Etxebizitzaren energia-ziurtagiria


Ekainaren 1ean argitaratu zen BOEn 390/2021 Errege Dekretua, eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duena. Horren arabera, 500 m²tik gorako azalera erabilgarria duten bizitokiek nahitaez eduki behar dute **ziurtagiri energetikoa**.




Alokairu turistikorako etxebizitzaren jabeak, beraz, ez du eraginkortasun energetikoaren ziurtagiririk eduki behar. Hala ere, gomendagarria da ziurtagiria edukitzea energiaren erabilera arduratsua hobetu dezaketen alderdiak identifikatzeko eta, beraz, bezeroek egiten dituzten kontsumoen faktura murrizteko aukera emango duen diagnostikoa lortzea. Eraginkortasun Energetikokoaren Ziurtagiria edukitzeak aukera ematen du:

- Eraginkortasun Energetikokoaren Ziurtagiria **Euskal Autonomia Erkidegoko Eraginkortasun Energetikokoaren Ziurtagiriaren Erregistroan inskribatzea.**
- **Eraginkortasun Energetikokoaren Etiketa** etxebizitzaren alokairua eskaintzen, sustatzen edo iragartzen duenaren esku jartzea: web atariak, komunikabideak, etab
- Alokairua nahi duen pertsona orori Eraginkortasun Energetikokoaren Ziurtagiriaren erregistro-zenbakia ematea, hala eskatzen badu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren webgunera jo dezakezu, <https://www.euskadi.eus/eraginkortasun-energetikokoaren-ziurtagiria/web01-a2energi/eu/>



✓ Energia kontsumoa kontrolatu (elektrizitatea eta gasa)



Kontuz!, ez nahastu banatzailea merkaturatzailearekin, fakturan banatzailearen izena adierazten da

Elektrizitatearen **zure banatzailearen** web atarian argiaren kontsumoarekin lotutako datu guztiak kontsulta daitezke: kontsumo gehien dagoen orduak eta egunak, gehieneko kontsumoaren gorakadak eta estatistika mota desberdinak.

✓ Energia kontsumitzen duten instalakuntzen mantentze eta garbiketa egokiak egin

Energia kontsumitzen duten instalazioen **mantentze-lanak** hobetzeak, horien **garbiketa** barne, energia-kontsumoa murrizten du, instalazioa optimizatzen du, matxurak prebenitzen ditu eta balio-bizitza luzatzen du.



Gomendagarria da energia kontsumitzen duten instalazioak (argiak, berogailuak, aire girotua, etxetresna elektrikoak, etab.) **garbitzeko eta prebentziozko mantentze-lanak egiteko plan** bat izatea.

Mantentze-eragiketak **profesional kualifikatuek** egin behar dituzte.

✓ Instalazioen arazko azterketak eta ikuskapenak egunean izan

Instalazio termikoen (galdarak, berogailuak, aire girotuko ekipoak) arazko azterketak eta ikuskapenak egin behar dituzte. Azterketa eta ikuskapen horien aldizkakotasuna potentzia erabilgarri nominalaren eta instalazio horien erabileraren araberakoa da.

Profesional kualifikatuek egin behar dituzte berrikuspen-eragiketak; ikuskapenak, berriz, kontrol-erakunde baimenduek (OCA) egin behar dituzte. Informazio gehiago Eusko Jaurlaritzaren webgune hauetan kontsulta daiteke.

Instalazio termikoen berrikuspenen eta ikuskapenen aldizkakotasunari buruzko informazioa



Instalazio-, mantentze- edo konponketa-jarduerak egiteko gaitutako enpresak




Ikuskapenak egiteko baimendutako kontrol-erakundeak



✓ Energetikoki eraginkorrak diren ekipoak eskuratu

Ekipamendu bat erosi behar denean: etxetresna elektrikoak, girotzeko aparatuak, argiztapena eta abar, ahalik eta mota eraginkorrena izan dadin saiatu. Ekipo baten eraginkortasun energetikoa ezagutzeko, haren **eraginkortasun energetikoaren etiketa** kontsultatu behar dugu.

Gaur egun, etiketatze energetiko berria ezartzen ari dira hainbat ekipo-talderentzat



Etiketatzeko energetikoari buruzko informazioa. (Miteco)



✓ Etxebizitzaren isolamendua hobetu

Isolamenduaren hobekuntza txiekiek berokuntzan eta aire girotuan %30erainoko aurrezpen energetiko eta ekonomikoak ekar ditzakete.

- Kortxoetako, beira-zuntzeko edo poliuretanozko 3 cm-ko geruza batek metro bateko lodiera duen harrizko horma baten ahalmen isolatzaile bera du.
- Kristal bikoitzeko edo leiho bikoitzeko sistemek ia erdira murrizten dute bero-galera kristal arruntekin alderatuta, eta, gainera, murriztu egiten dituzte aire-korronteak, uraren kondentsazioa eta antzigarra sortzea.
- Arotzeria mota ere erabakigarria da. Ahal bada, erabili egurrezko markoak leihoetarako. Azpimarratzekoak dira zubi termikoaren haustura duten arotzeriak; horiek material isolatzaileak dute markoaren barnealdearen eta kanpoaldearen artean.

Iturria: energiaren Gida Praktikoa. Kontsumo eraginkorra eta arduratsua. IDAE, Espainiako Gobernuak

✓ Aire girotuaren eta argiztapenaren itzaltze automatikoa programatu (sentsoreak, giltza automatikoa, etab.)

Aire girotuko eta argiztapeneko aparatuak itzaltzeko sistema automatikoak instalatzea leihoak irekitzen direnean eta bezeroak gelatik ateratzen direnean.


Adibidez, sentsoreak, giltza/txartel zentralizatua, etab. Bezeroak apartamentutik edo etxebizitzatik ateratzen direnean argi guztiak itzaltzen dituztenak.

✓ Terrazetan edo balkoietan berokuntzako edo aire girotuko aparatuek ez instalatu

Espazio ireki bat berotzea edo hoztea energetikoki eraginkorra ez den praktika bat da.

✓ %100 energia-iturri berriztagarrietatik datorren elektrizitatea eskuratu

Energia berriztagarria edo garbia %100 iturri berriztagarrien bidez ekoizten dena da. Banaketa elektrikoa sortu eta banaketa-sare elektrikora isurtzen da, eta ia ezin izango da bereizi jatorri berriztagarria ez duenetik. Beraz, etxebizitza bakoitzera iristen den energia elektrikoa ezin da bereizi sistema elektriko berera konektatutako beste etxebizitza batzuek kontsumitzen dutenetik. Iturri berriztagarrietatik %100eko elektrizitatea eskuratzeko esan nahi du merkaturatzaileak bezeroari bermatzen diola bere etxebizitzak kontsumitzen duen energia kopuru bera iturri berriztagarrietatik sortu eta banaketa-sarera isuriko dela.



Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren webguneak energia-eskaintzen konparatzaile bat eskaintzen du. Konparatzaile honetan, merkaturatzaile bakoitzak bere etxebizitzarako dituen energia-eskaintzak simulatzeaz gain, energia berdea eskaintzen dutenak hautatzeko aukera ematen du (kasu honetan, iturri %100 berriztagarrietatik datozenez gain, eraginkortasun handiko kogeneraziotik datozenak ere sartzen dira).



UR KONTSUMOA

Uraren erabilera arduratsua egiteko gomendioak

✓ Ur kontsumoa kontrolatu

Ur-kontsumoaren kontrola beharrezkoa da uraren kontsumo arduratsua egiten ari den jakiteko edo ur-ihesak detektatzeko. Kontrol hori fakturen bidez edo zuzenean ur-kontagailuak irakurriz egin daiteke.

Turismo-sektoreko ingurumen-kudeaketako jardunbide onenei buruzko Erreferentziako Dokumentu Sektorialak (EMAS) honako kasu hauetan adierazten du ur-kontsumo arduratsu baten erreferentzia-parametro gisa:



≤ 140 litro ostatu-gau bakoitzeko (zerbitzu guztiak dituzten ostatuetan)

≤ 100 litro ostatu-gau bakoitzeko (komun gehienak partekatuak diren ostatuetan (aterpetxeak adibidez))

✓ Ura kontsumitzen duten ekipoen mantentze egokia egin



Ura kontsumitzen duten ekipoen eta ura dabilen hodian aldizkako mantentze prebentiboa programatzea.

Ihesik ez dagoela egiaztatu.

✓ Ur kontsumoa duten ekipo eraginkorrak instalatu

Instalazioetan bainuontziak instalatzea saihestea. Gomendagarria da ura aurrezteko gailuak dituzten instalazioak jartzea, adibidez:

- Emari txikiko dutxetarako langargailu txorrotak eta txorrota termostatikoak,
- Txorrota tenporizatuak edo elektronikoak konketetarako,
- Sakagailu bikoitzeko eta emari baxuko komunak.



Txorrotak aldatzen ez diren bitartean, emari-murriztaileak, aireztagailuak edo perlizagailuak jar daitezke.

Uraren kontsumo arduratsua adierazten duten erreferentzia-parametro batzuk:

Instalazioa	Emaria	Erreferentzia
Dutxa	≤ 7 litro / minutu	Turismo-sektoreko ingurumen-kudeaketako jardunbide onenei (EMAS) buruzko erreferentziazko dokumentu sektoriala
Bainugelako txorrotak (antzinakoak)	≤ 6 litro / minutu	
Bainugelako txorrotak (berriak)	≤ 4 litro / minutu	
Komunontzien batez besteko deskarga eraginkorra	≤ 4,5 litro / minutu	BATZORDEAREN 2017/175 (EB) ERABAKIA, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, turismo-ostaturako EBren etiketa ekologikoaren irizpideak ezartzeari buruzkoa
Etxeko arropa garbigailuak (7 kg)	< 6,5 litro / kg arropa < 43 litro zikloko	
Etxeko ontzi-garbigailua	< 10 litro garbiketako	



HONDAKINEN KUDEAKETA

Hondakinen kudeaketa egokiarekin erlazionatutako jardunbide egokiak

✓ Bezeroek hondakinak bereizteko behar dituzten ontziak izan

Etxebizitza turistiko batean sortzen diren frakzio ohikoenak eta gaika bildu behar direnak, honako hauek dira:



1. Beira
2. Ontziak
3. Papera eta kartoia
4. Hondakin organikoak
5. Etxeko olioak
6. Errefuxa

Zazpigarren ontzi edo espazio bat ere jar daiteke, honako hondakin hauek nahastuta uzteko, baina garbiketako langileek bereizi egin beharko dute dagokien leura eramateko:

7. Pilak, ehunak, etxeko hondakin arriskutsuak, sendagaiak, hondakin elektriko eta elektronikoak.

